Bertsoak: Aitor Mendiluze

Kupel barruko zukua bere
puntura heltzen ari da
urte osoa igaro degu
hain zuzen horri begira
Kontsejuak emanez
borondate onenez
bertso hauek sortu dira
esplikatzeko nola joan behar
degun sagardotegira.

Lehenengo gauza orduarena
zerbait aipatzen hasita
zortziak edo zortzi t´erdiak
hori da garai polita
hobe joatea garaiz
jan beharko det korrika
nagusia gu noiz irtengo zai
ez da egongo beti ta.

Makurtu eta basoa jeitsiz
serbitu behar horrela
sagardo printzak aldamenaren
kontra lehertu daitezela
gutxi eta maiz hartuz
txanda errespetatuz
giza legean gaudela
gurekin berdin egin dezaten
gustatzen zaigun bezela.

Sagardoak zer eragin duen
lehendik dago nabarmen
eta ertzainek negozioa
egiten dute ondoren
edan behar badegu
ikasi dezakegu
esaerak zer dioen
hustutzen jakin behar degula
betetzen hasi baino lehen.

Kanpotik asko etortzen dira
hau famatua izanda
eta kalera etortzerako
daude gehiegi edanda
betiko sesioa
dator inbasioa
eta oroitzea lan da
ezin degula nagusi izan
besteren etxera joan da.

Nere usteak bertso hauetan
jarri ditut agerian
nahiz eta jende batzuentzako
alperrik izan agian
laister sartuko gara
hil hontatik aurrera
tenporadaren erdian
ea guztiok gozatzen degun
aurten sagardotegian.